

## Euskal AEko esportazioen balioa BPGren %32,2 2017ko lehen hiruhilekoan

**Lehen hiruhilekoan esportazioak %13,2 gehitu eta inportazioak %34,9**

Euskal AEko **esportazioak** %13,2 gehitu ziren nominalki 2017ko lehen hiruhilekoan, EUSTATen arabera. Esportazioen balioa, 5.792 milioi, hiruhileko honetan BPGren balioaren %32,2, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 2,5 puntu gehiago.

**Inportazioak** 3.536 milioitik 4.768ra gehitu (%+34,9); batez ere *Produktu energetikoengatik* (%+130,6).

### Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2017, Lehenengo hiruhilekoa. Milaka eurotan


	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrilla-Martxoa			Urtarrilla-Martxoa		
	2016	2017	Δ %	2016	2017	Δ %
<b>EUSKAL AE</b>						
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.115.064</b>	<b>5.792.082</b>	<b>13,2</b>	<b>3.536.003</b>	<b>4.768.389</b>	<b>34,9</b>
PRODUKTU ENERGETIKOAK	348.655	388.349	11,4	614.168	1.416.338	130,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.766.409	5.403.732	13,4	2.921.835	3.352.051	14,7
<b>ARABA / ÁLAVA</b>						
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.679.679</b>	<b>1.896.324</b>	<b>12,9</b>	<b>934.307</b>	<b>991.986</b>	<b>6,2</b>
PRODUKTU ENERGETIKOAK	2.642	307	-88,4	643	679	5,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.677.037	1.896.017	13,1	933.665	991.307	6,2
<b>BIZKAIA</b>						
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.818.616</b>	<b>2.174.953</b>	<b>19,6</b>	<b>1.781.404</b>	<b>2.852.712</b>	<b>60,1</b>
PRODUKTU ENERGETIKOAK	344.804	385.700	11,9	611.529	1.413.912	131,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.473.812	1.789.253	21,4	1.169.875	1.438.800	23,0
<b>GIPUZKOA</b>						
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.616.769</b>	<b>1.720.804</b>	<b>6,4</b>	<b>820.292</b>	<b>923.690</b>	<b>12,6</b>
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.210	2.342	93,6	1.996	1.746	-12,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.615.560	1.718.462	6,4	818.295	921.944	12,7

**Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)**

**Saldo** garbia, positiboa: 1.024 milioiko **superabita**. Esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa, %121,5. **Merkataritza saldo ez-energetikoak** 2.052 milioiko superabita; produktu hauen estaldura-tasa, %161,2.

**Europar Batasunerako esportazioak** %12,7 gehitu dira 2016ko aldi beraren aldean, esportatutako guztiaren %66,9 dira. Esportazio gehikuntza handienak: Herbehereetara (%56,7), Erresuma Batura (%21,4), Belgikara (%13,2), Alemaniara (%11,3), Frantziara (%7,1). Portugalera %2,3 jaitsi. Esportazioak 28-EBtik kanpora: Mexikora %+27,1; Turkiara %+21,3.

## Euskal AEko kanpo-merkataritzaren urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Europar Batasunetik, **inportazioak** %36,5 gehitu: Italiatik %18,2, Irlandatik %18,0, Frantziatik %14,4, Alemaniatik %13,3. Batez ere Erresuma Batutik eginiko energetikoetatik %535,1. Munduko gainerakoan nabarmentzen dira Mexikotik (%+275,9), Nigeriatik (%+25,4), Errusiatik (%+3,9) eginikoak, denak energetikoak. AEBetatik %+37,0, Txinatik %-9,3.


**Muga-zergen sekzioen arabera**, esportazioetan: *Garraio Materiala* (%+18,2) *Metalak eta bere manufakturak* (%17,9), *Material elektrikoa* (%+6,5). Inportazioetan: *Produktu mineral eta energetikoak* (%+124,3), *Metalak eta beren manufakturak* (%+22,6), *Material elektrikoa* (%+10,4).

**Arabako** esportazio hazkunderik handiena (%12,9), batez ere *Garraio materialagatik* (%19,4). Gehien saldutako produktua (esportazio guztien %30,1) hiruhileko honetan: *Pertsonak* (<10) *nagusiki garraiatzeko ibilgailuak*, *diesel motordunak* (1.500 cm<sup>3</sup> - 2.500 cm<sup>3</sup>). Arabako inportazioak %6,2 gehitu; *Garraio materiala* (%9,6), *Material elektrikoa* (%9,2); *Metalak eta bere manufakturak* (%7,1).

**Bizkaiko** esportazioak %19,6 gehitu, batez ere *Metalak eta beren manufakturak* adarrarengatik (%29,2). Esportazio nagusia (guztia %4,8) *Naftalenoa*, zeina nagusiki polivinilo-klorurozko (PVC) plastikoak egiteko erabiltzen baita. Inportazioak %60,1 gehitu, batez ere *Produktu mineral eta energetikoengatik* (%128,1).

**Gipuzkoan** esportazioak %6,4 gehitu, hazkunderik txikiena. Gehien hazitakoa, *Garraio materiala* (%18,6). *Trenbideetarako eta tranbia elektriko autobulkatutakoetarako automotorrak* esportazioen %4,5, hiruhileko honetan, nagusia. *Metalak eta beren manufakturak* (%+26,8) gehien hazitako inportazioak (%+12,6).

### Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (Milioi euro)



**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE). Prensa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua